

---

## OINARRIAK 2023

### Donostia eta Gipuzkoari buruzko Azterketa Historikoen Buletina

---

#### Buletinaren ikuspuntua eta helmena

Donostian sute ikaragarria izan zen 1813an, eta bertan galdu zen hiriko memoria historikoa. 1813 baino lehenagoko Donostiaren historia erreskatatzeko, ezagutzeko eta zabaltzeko helburuarekin, Historia Donostiarraren Doctor Camino Taldearen sortzaileek, Euskalerraren Adiskideen Elkartearen babesean, 1964an hartu zuten Donostiari buruzko Azterketa Historikoen Buletina urtero argitaratzeko konpromisoa. Lehenengo alea 1967an argitaratu zen, ordurako Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala zenari lotuta. Adierazitako Aurrezki Kutxa Munizipala Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialarekin elkartu zenean, azterketa-esparrua Gipuzkoako lurraldera hedatu zuen, betiere gaiak Donostiako historia ere islatzen bazuen. Fusio haren ondorioz Taldea bere izena hartu zuen Institutu bihurtu zen.

Buletina Kutxa Fundazioaren jarduera-eremura egokitzeko nahiak azterketa-eremua Gipuzkoako lurralde osora zabaltzera eraman gaitu, eta bere izenburuan publikoki adieraztera, aurrerantzean “Donostia eta Gipuzkoari buruzko Azterketa Historikoen Buletina” izango delarik. Horri esker, Donostiako historiarekin lotura handiagoa edo txikiagoa duten beste herri batzuen azterlan historikoak txertatu ahal izango ditu bere orrietan.

Buletina errealitate berrira egokitzeko desira horretan bertan, bere sorkuntza- eta lantze-prozesua oinarri sendoetan kokatzea erabaki da, Euskal Herriko beste aldizkari akreditatu batzuek berea bultzatzen eta arautzen duten oinarrien antzekoak. Donostia eta Gipuzkoari buruzko Azterlan Historikoen Buletina (aurrerantzean, “**Buletina**”) Kutxa Fundazioak (Dr. Camino Institutoa) argitaratzen du, eta Donostian du egoitza.

#### Egileentzako jarraibideak

1. Lanak argitaragabeak izango dira, hau da, aurretik osorik edo zati batzuetan argitaratu gabe egongo dira. Bidaltzen diren unean ez dira beste argitalpen baten ebaluazioaren mende egongo, ez eta jendearen eskura ere formatu bakar batean (digitalean edo paperean). Gaztelaniaz edo euskaraz idatzitako artikulua onartuko dira. Jatorrizkoak aurkezteko azken eguna urte bakoitzeko otsailaren 15a izango da. Egun horretatik aurrera aurkezten diren artikulua, hala badagokio, hurrengo urtean argitaratuko dira.

2. Artikuluak euskarri digitalean aurkeztuko dira, Kutxa Kulturaren webgunean ([www.kutxakultur.eus](http://www.kutxakultur.eus) > Programak > Argitalpenak > Azterketa Historikoen Buletina) eskuragarri dagoen online formularioaren bidez. Formulario horretan datu pertsonalak beteko dira: izena eta bi abizenak; zein titulurekin identifikatu nahi den; posta-helbidea; helbide elektronikoa; telefono-zenbakia; eta IBAN bankuko kontua (lansariak ordaintzeko). Artikulua sinatzen dutenak pertsona bat baino gehiago badira, guztien datu pertsonalak adieraziko dira.

---

Artikuluak hiru atal hauetako batean sailkatuak egongo dira: Azterlanak, Miszelanea eta Oharrak. Azterlanak modu anonimoan ebaluatuko dira, parekoen ebaluazio bikoitz baten bidez. Oharrak eta Miszelanea lanen ebaluaketa, eta onarpena, Buletinaren zuzendaritzak egingo du.

Ikerlan bat aurkezten denean, artikulu akademikoa erantsiko da, aurretik sinatzailearen izena eta afiliazio instituzionala kenduta (horren orde “autoerreferentzia” hitza jarriko da). Horrez gainera, sinatzailea identifikatzea ahalbidetuko lukeen edozein erreferentzia (esker onak, norberaren lanei aipamena egiteko lehenengo pertsona erabiltzea, etab.) kenduko da. Norberaren lanak hirugarren pertsonan aipatuko dira, ebaluatzen dutenek ez dezaten egilea identifikatzerik izan.

Azterlanei dagokionez, testuak Buletinaren Zuzendaritzaren eta Idazkaritzaren hasierako oniritzia izaten duenean, modu anonimoan bidaliko da ebaluatzerara. Artikulua, aldaketak eginda edo aldaketarik egin gabe, argitaratzeko onartzen bada, sinatzaileari jakinaraziko zaio, honek behin betiko bertsioa bidal dezan “autoerreferentzien” lekuan bere izena eta afiliazio instituzionala jarrita.

**Miszelanea eta Oharrak ataletara aurkeztu eta atxikitutako artikuloak egileen izenak eduki beharko dituzte.**

3. Ikerlan atalera aurkeztutako artikuloentzat, Buletinak kanpoko ebaluazio-sistema bat du, eta ebaluazio hori izen aitortua duten profesionalek eta mundu akademikoko pertsonak egiten dute. Parekoen ebaluazio bikoitz itsua izango da ebaluaziorako erabiliko den sistema, eta artikuluak aurkezten dituztenen nahiz horiek ebaluatzen dituzten bi pertsonen anonimata zainduko da. Ebaluatzaileek proposatuko dute artikulua onartu ala ez, edo behin betiko onartzeko aldaketak egin behar diren. Kasu horretan, egileak astebete izango du aldaketa horiek egiteko, baldin eta artikulua argitaratzea nahi badu.

4. Testua PDF formatuan aurkeztuko da, koskatu gabe eta tabulazioak sartu gabe. Ertzak 2,5 cm-koak izango dira, Times New Roman 12 letra erabiliko da eta lerroarte 1,5ekoa izango da. Oharrak orri-oinen jarriko dira Times New Roman 10 letra, eta numerazioa korrelatiboa izango da.

**Azterlanak** gehienez 12.000 hitz izango dituzte (28 bat orrialde). Lan luzeagoak ere onartuko dira, eta **Miszelanea** gisa argitaratuko dira. Azterlan laburrak edo oraindik garatu gabe dauden ikerketa batzuetako intereseko gaiak **Ohar** moduan argitaratuko dira. Orrialde guztiak zenbakiturik egongo dira, bai eta oharrenak eta grafikoenak ere.

5. Lanekin batera laburpen bat aurkeztuko da, gehienez 80 hitzekoa. Horrez gainera, gako-hitzak aipatuko dira (gehienez bost), garrantziaren arabera antolatuta. Laburpena eta gako-hitzak lana idatzi den hizkuntza berean aurkeztuko dira. Buletina arduratuko da euskarara edo gaztelaniara (dagokion hizkuntzara) eta ingelesera itzultzeaz, sinatzaileak berak itzuli nahi ezean.

---

6. Testua behar bezala antolatzeko, ongi berezitako zatietan banatzea gomendatzen da, eta epigrafe nagusietan zenbaki erromatarrak erabiltzea eta gainerakoetan zenbaki arabiarak (adibidea: I./1/1.1./2./2.2./2.2.1./3./II./1...).

7. Marrazkiak, grafikoak, taulak eta abar miniaturan aurkeztuko dira dokumentu bakarrean (PDF formatuan), legenda eta iturria adierazita, eta online formularioari erantsiko zaizkio. Artikulua onartzen bada, sinatzaileari materiala bereizmen handian bidaltzeko eskatuko zaio.

8. Aipuak letra etzanez idatziko dira, eta testuan integratuta joango dira bi lerro baino gutxiago dituztenean. Aipuak luzeagoak direnean, gomendatzen da paragrafotik bereiztea, koskatutako lerroetan jartzea eta letra-tamaina txikiagoa erabiltzea.

9. Oharrak orri-oinetan joango dira, eta horien numerazioa korrelatiboa izango da. Oharrak erreferentzia osoa eduki behar du, eta ondoren aipuaren orrialdea (or.) edo orrialdeak (orr.) adieraziko dira.

Sinatzailearen izena laburtuta joango da (Adibidez: TELLECHEA IDÍGORAS, J.I.). Liburu edo artikulu berari buruzko bata bestearen atzeko aipuak laburtuta joango dira (abizen bat bakarrik letra larritan, eta izenburua zein den jakiteko lagungarria izango den izenburuko elementuren bat), eta elementuak koma bidez berezita (Adibidea: TELLECHEA IDÍGORAS, J.I., *Una historia turbulenta...*, 339 or.). Ondorengo aipuak lan bereko lehenengo aipuekin erlaziona daitezke (Adibidea: TELLECHEA IDÍGORAS, J.I., op. cit., 339 or.; Ibid., 339. or.).

10. Artikuluarekin batera aurkeztuko den azken atalean aipatutako bibliografia jasoko da, eta egileak alfabeto-hurrenkeraz antolatuko dira. Bibliografia-erreferentzietan honako arauak jarraituko dira (ISO 690, ISO 215): 756 arau jatorrizko testuak aurkezteko.

>Liburu osoak

ABIZENAK, Izena, *Izenburua: azpiizenburua*. Izena Abizenak (e)k itzulua; Izena Abizenak (e)k [bigarren mailako beste arduradun batzuk] gainbegiratua, argitp. zk., Hiria: Argitaletxea, urtea. Orrialde-kopurua edo ale-kopurua (ale bat baino gehiago badira). Bilduma.

Adibidea: TELLECHEA IDÍGORAS, J.I., *Una historia turbulenta. La fundación de la Compañía de Jesús en San Sebastián (1619-1627)*, San Sebastián-Donostia: Historia Donostiarraren Doctor Camino Taldea, 1997. 422 orr. "Monografiak" bilduma, 45.

>Ekarpenak liburuetan

ABIZENAK, Izena, Artikuluaren izenburua. Hemen: Abizenak, Izena (ed.) [hala badagokio, zuz., koor., etab], *Liburuaren izenburua*, Hiria: Argitaletxea, urtea, orrialdeak.

Adibidea: DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, L.M., *La Diputación de las Juntas Generales de Guipúzcoa, sus primeros 25 años de historia (1550-1575)*. Hemen: Aquilino Iglesia Ferreirós eta Sixto Sánchez-Lauro, *Centralismo y Autonomismo en los siglos XVI-XVII. Homenaje al Profesor Jesús Lalinde Abadía*, Bartzelona: Bartzelonako Unibertsitatea, 1989, 131-159.

>Artikuluak eta ale monografikoak aldizkarietan

ABIZENAK, Izena, Artikuluaren izenburua. Bigarren mailako arduradunak diren beste pertsona batzuen Izena eta Abizenak, *Argitalpenaren titulua*, Artikuluaren lokalizazioa [ale-zenbakia, urtea, orrialdeak]. Adibidea: BERRIOCHOA AZCÁRATE, P., Un bicentenario, José María Iparraguirre (1820-1881): a corriente y contracorriente, *Donostiari buruzko Azterketa Historikoen Buletina*, 53 (2020), 253-305 orr.

>Biltzar eta bileretako aktak

ABIZENAK, Izena, Ekarpenean indibidualaren izenburua. Hemen: Abizenak, Izena (ed.) [hala badagokio, zuz., koor., etab], *Akten izenburua* [lekua eta urtea barne], Hiria: Argitaletxea, urtea, orrialdeak.

Adibidea: AYERBE IRIBAR, M<sup>a</sup> R., Notas acerca del fuero de San Sebastián: su expansión, vigencia y modernidad, y análisis de sus textos. Hemen: Xabier Irujo eta Amaia Álvarez Berastegi (edit.), *Los fueros de Estella y San Sebastián (San Sebastián, 2-3 julio 2018)*, Donostia: Iura Vasconiae. Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeke Fundazioa, 2020, 255-333 orr. Humboldt Saila, 6.

>Interneteko baliabideak

Interneteko helbide osoa jarriko da, eta parentesi artean kontsultaren data: <http://www.prueba.eus/prueba/eus/artikuloa.php?id=120> (2020ko maiatzak 20).

Horrez gainera, web-orri konbentzional bat ez bada, hau da, online argitalpen bat, aldizkari elektronikoa bat, eta abar, bada, Interneteko helbidearen aurretik aipatutako artikuluaren datuak jarriko dira, inprimatutako argitalpen bat izango balitz bezala: Iker Bermejo: “La destrucción del archivo municipal de San Sebastián en 1813”, Ikertuz aldizkaria OnLine, 20, 2020 (<http://www.prueba.eus/prueba/eus/artikuloa.php?id=120>, 2020ko maiatzak 20).

>Artxiboko dokumentuen erreferentziak

Artxiboaren izen osoa jarriko da, eta ondoren bere inzialak, orri-oineko beste ohar batzuetan berriz aipatu behar bada. Jarraian, atala –hala badagokio– eta dokumentuaren katalogo-zenbakia: Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa (AHPG-GPAH), Foruak, 1234/56.

>Egunkarietako erreferentziak

Egunkariaren izena eta argitalpenaren eguna jarriko dira, honela: Berria, 2020-V-20. Prentsa artikulua berdina behin baino gehiagotan aipatu behar denean oharretan, ohar bakar batean izango da; ez dira inoiz jarriko oharrak bata bestearen azpian<sup>1 2 3</sup>. Adibidea<sup>4</sup>.

**11.** Argitaratu behar denean, inprentako probak bidaliko dira, eta egileak edo egileek hamabost eguneko epea izango dute zuzenketak egiteko. Egiten ez badute, Buletineko erredakzio-taldeak egingo ditu zuzenketak.

---

<sup>1</sup> Berria, 2020-V-20.

<sup>2</sup> Diario Vasco, 2020-V-19.

<sup>3</sup> El País, 2020-V-22.

<sup>4</sup> Berria, 2020-V-20; Diario Vasco, 2020-V-19; El País, 2020-V-22.

**12.** Sinatzaileei 300 euro ordainduko zaizkie editatutako Buletinean argitaratu den artikulu (edo miszelanea) bakoitzeko. Oharrak 100 euro ordainduko dira. Sinatzaileek faktura zenbakitua bidali behar dute dagokion atxikipena eginda, eta, ezarriko balitz, BEZa ezarrita, Kutxa Fundazioaren izenean (IFK G20368593, Mikeletegi Pasealekua 79, 20.009 Donostia).

**13.** Autore batek gehenez bi artikulu edo miszelanea argitaratu ahal izango ditu Buletin bakoitzean, eta kontuan izango dira egilekidetzak ere.

### **Egile-eskubideak**

Egileek Kutxa Fundazioari lagako dizkiote, Donostia eta Gipuzkoari buruzko Azterketa Historikoen Buletinaren argitaratzailea den aldetik, denbora eta lurralde mugarik gabe eta eskusibotasunik gabe, bere argitalpenerako aurkeztutako lanei buruz dagozkion ustiapen-eskubide guztiak, eta, bereziki, erreproduzio, banaketa eta komunikazio publikoko eskubideak, eta paperean nahiz formatu elektronikoan argitaratzeko eta Internet bidez komunikatzeko ahalmena emango dio.

Buletinak artikuluak Creative Commons-en Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririk Gabe 4.0 izeneko lizentziaren pean berrerabiltzea onartzen du. Kopiatu, erabili, hedatu, transmititu eta publikoki erakutsi daitezke, beraz, baldin eta egilea eta Buletina aipatzen badira eta merkataritza-helburuekin erabiltzen ez badira.

Egileak ados daude Buletinak erabilitako erabilera-lizentziarekin eta sarbide irekiko politikarekin, eta biak baimentzen dituzte. Argitaratutako lanak berrerabiltzen direnean, argitalpen-iturria aitortu behar da. Editoreak ezarritako adierazpena sartu behar da:

- Jatorriz Kutxa Fundazioko Dr. Camino Institutuak (Donostia-San Sebastián) argitaratutako Donostia eta Gipuzkoari buruzko Azterketa Historikoen Buletinak argitaratua, [zenbakian eta urtean].

### **Pribatutasun adierazpena**

Emandako izenak eta helbide elektronikoak Buletinak adierazitako helburuetarako bakarrik erabiliko dira, eta ez dira eskuragarri egongo beste helburu batzuetarako edo pertsona batzuentzat. Online formularioan borondatez aktibatzeak aukera bat egongo da, Kutxa Fundazioaren argitalpenei edo informazio kulturalari edo orokorrari buruzko informazioa jaso nahi duenarentzat.

### **Oinarriak onartzea**

Lanak Buletinean argitaratzeko aurkezteak inplikatzan du egileek onartu egiten dituztela oinarri hauek.